

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko J Azbarren eremuko 34.1 Egikaritze-Unitatea urbanizatzeko proiektuaren behin betiko onarpena.**

Basauriko Udaleko Hiri Garapen eta Herritarren Segurtasunerako Jasangarritasun Arloko ordezkariak 2026.eko maiatzaren 27an 2479/2026 Dekretua eman zuen, Basauriko J Azbarren aldeko 34.1 egikaritze-unitatea urbanizatzeko proiektuari dagokionez. Honako hau xedatzen du:

Lehenengoa: Behin betiko onartzea J Azbarren eremuko 34.1 egikaritze-unitatea urbanizatzeko proiektua, J Azbarren eremuko Hitzarmen Batzordeak 2026ko maiatzaren 18an aurkeztua eta testu bategin gisa espedienteari erantsia, dokumentu horrek hasierako onespenean eskatutako zuzenketak behar bezala jasotzen dituela eta aplika daitezkeen hirigintza-zehaztapenak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

Bigarrena: Hitzarmen Batzordeari gogoraraztea 2/2006 Legearen 198. artikuluan xedatutakoa, urbanizazio-obren udal-harrerari buruzkoa, eta Udalari jakinaraztea, gutxienez hogeitaz egun lehenago, obra horiek entregatzeko edo eskura jartzeko aurreikusitako data.

Hirugarrena: Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren egoitza elektronikoki argitaratzea.

Laugarrena: Ebazpen hau interesdun guztiei jakinaraztea, legezko errekursoak adierazita.

Urbanizazio-proiektua behin betiko onartzeko ebazpena behin betikoa da administrazio-bidean, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekursoaren aurretik, berraztertze errekurtoa jarri ahal izango zaio orain jakinarazten den administrazio-egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Berraztertze errekurso hori ezetsitzat joko da administrazio-isiltasunez, baldin eta, errekurtoa jarri zenetik hilabeteko epean, ebazpenaren berri ematen ez bazaio. Azken kasu horretan, jakinarazpen honen lehenengo paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, ezespena administrazio-isiltasunez gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Basaurin, 2026ko maiatzaren 27an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren